



BILERA-AKTA REUNIÓN-ACTA

ZEHAZTASUNAK / *DETALLES*

Gaia edo arloa: EAEANren epaiari buruzko Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluko Bilera
Tema o área: Reunión del Consejo Territorial de Deporte Escolar sobre sentencia del TSJPV

Tokia / *Lugar*: Kiroletxea, Donostia.

Eguna / *Fecha*: 2025-02-04

Ordua / *hora*: 18:00

PARTE-HARTZAILEAK / *PARTICIPANTES*

Izen-abizenak <i>Nombre y apellido</i>	Erakundea edota kargua <i>Entidad y/o cargo</i>
Arkaitz Angiozar	Lezoko Udala
Rosa Lasagabaster	Oñatiko Udala
Joseba Angulo	Zumarragako udala
Julen Perales	Kurtzebarri eskola
Maialen Pescador	Orereta Ikastola
Imanol Mendizabal	Orixe Ikastola
Jose Angel Rial	Karateko Federazioa
Arantxa Arzak	Eskubaloi Federazioa
Ainhoa Ostolaza	Txirrindularitza Federazioa
Iker Lizarribar	Judo federazioa
Aitor Garro	Atletismoko Federazioa
Marta Pastor	GFA-ko Kiroletako zuzendari nagusia
Iñaki Iturrioz	GFA-ko JFko eta Kiroletako zerbitziburua
Itsaso Nabaskues	GFA-ko Kirol teknikaria
Hugo Sánchez	GFA-ko Kirol teknikaria

GAI-ZERRENDA / *ORDEN DEL DÍA*

1. Eskola Kiroleko Lurralde kontseiluko hauteskundeak.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 19/2025. Epai.

- 1. Elecciones al Consejo Territorial de Deporte Escolar.*
- 2. Sentencia 19/2025 del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.*

EZTABAIDAK ETA ERABAKIAK

1.

Itsaso Nabaskues - Gipuzkoako Foru Aldundia:

Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluko hauteskunde prozesua martxan jarri dela adierazten du.

Comunica que se ha puesto en marcha el proceso electoral del Consejo Territorial de Deporte Escolar.

2.

Iñaki Iturrioz - Gipuzkoako Foru Aldundia:

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 19/2025 Epaian alderdi demandatzailearen

errekurtsoaren aldeko baiespren partziala ebatzi dela, eta ezarritako derrigortasuna Euskadiko Jarduera



Fisikoaren eta Kirolaren 2/2023 Legean (JFKL) ezarritako lehentasunezko izaeraren aurkakoa izango litzatekeela dio. Jarraian Epai horren oinarri diren funtsezko hiru irizpideak azaltzen ditu:

- Gipuzkoako araudiak legeak eskatutako homogeneizazioa hausten duela uste du, Arabako eta Bizkaiko Lurralde Historikoen irizpidetik aldentzen baita.
- Eusko Legebiltzarrak hautazko kirol anitzeko praktika bat ezarri duela ondorioztatzera daramatzala dio, baina ez duela kirol anitzeko praktikarik inposatzen.
- Eskola kirola erabat borondatezkoa den jarduera bezala antolatzen duela uste du, ikasleek kirola libreki egiteko duten askatasunari lehentasuna emanaz.

Ondoren, Gipuzkoako Eskola Kiroleko eredu defendatzeko argudioak eta legearen artikuluko horien interpretazioa azaltzen dira:

- Legeak "ahalik eta homogeneizazio handiena" lortzea duela helburu, ez erabateko homogeneizazioa, horrek lurralde historikoetako foru-organoen eskumenak urratuko lituzkeelako. Gainera, lurralde historikoetako foru-organok gaitzen dituela, hala uste badute, ikasleek "ibilbide eta kategoria jakin batzuetan" parte hartzeko "derrigortasuna" eredu bereziak ezartzeko.
- Legeak Euskadiko kirol hastapenari dagokion bi agindu argi ezartzen dituela: 6-12 urteko etapan jarduera fisiko ludikoa eta kirol anitzekoa berrmatuko dela eta antolatutako jardueretan lehiaketak eta entrenamenduak egin ahal izango direla, betiere eskola adineko kirol anitzeko jardueren osagarri moduan eta ez ordezkotzat.
- Jarduera fisikoaren eta eskola adineko kirolaren hastapen aldia helburu hezigarriak lortzeko eta ikastetxearen testuinguruan garatuz berriaz ezartzen duela. Hori dela eta, Multikirola Programan parte hartzeko derrigortasuna eta ikastetxea 12 urtera arteko eskola-kirolaren eskaintzaren ardatz gisa kokatzeko derrigortasuna, kirol anitzeko berme-mekanismo gisa, eta lehiaketara soilik zuzenduta ez dagoen testuinguru bat eskaintzeko ezartzen dela.
- Multikirolaren helburua hurrei, ikastetxearen bidez, emaitzaren gaitetik prozesuan ardaztuta dagoen kirol anitztasunean oinarritutako kirol-hastapena eskaintzea dela. Ebidentzia zientifikoak lehen etapetan kirol modalitate desberdinetan oinarritutako kirol hastapena modalitate bakar batean ardaztutako praktika baino onuragarriagoa dela erakusten du.
- Eskola kiroleko programetan parte hartzearen helburua ez dela askatasuna murriztea, baizik eta haur guztiek erabat hezitzailea den esperientzia izan dezaten ziurtatzea, espezializazio goiztiarrarekin lotutako arazoak saihestuz eta gizarte osasuntsuagoa, bidezkoagoa eta prestatuagoa sustatuz.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoak, jarduera fisikoaren eta kirolaren hastapen-politiken bidez, hainbat ataletan inpaktu maila handiak lortzen dituela. Horrela, egiaztatu da datu ezberdinak erreparatuz:
 - Neska eta mutilen denbora aktiboaren kopurua.
 - OMEren Jarduera Fisikoaren gomendioak betetzen duten neska eta mutilen kopurua.
 - Jarduera fisikoa edo kirola modu antolatuan egiten duten neska eta mutilen kopurua.
 - Kirol lizentzia kopurua.
 - Etorkizuneko kirolarien ekarpenaren kopurua.
 - Goi mailako kirolari aitortuen kopurua.
 - JJOetara eramandako kirolari kopuruan eta bertan lortutako emaitzak.
 - Desgaitasunen bat aitortuta duten pertsonen artean ariketa fisikoko programa erregularretan parte hartze kopurua.

Azkenik, bilerara bertaratu diren partaide ezberdinei ahotsa ematen zaie, gaiari buruz duten iritzia eman dezaten.

La sentencia 19/2025 del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco resuelve la estimación favorable parcial del recurso de la parte demandante indicando que la obligatoriedad establecida sería contraria al carácter preferente establecido en la Ley 2/2023 de la actividad física y el deporte del País Vasco (LAFD). A continuación, expone los tres criterios fundamentales en los que se basa esta Sentencia:

- *Considera que la normativa guipuzcoana rompe la homogeneización exigida por la ley al alejarse del criterio de los Territorios Históricos de Álava y Bizkaia.*



- *Sostiene que el Parlamento Vasco ha establecido una práctica multideportiva optativa, pero no impone una práctica polideportiva.*
- *Estima que el deporte escolar se configura como una actividad plenamente voluntaria, con primacía de la libertad de las y los escolares para la práctica del deporte como libremente deseen.*

A continuación, se exponen los argumentos para defender el modelo de Deporte Escolar de Gipuzkoa y la interpretación de dichos artículos de la ley:

- *Que la ley establece como objetivo el conseguir la “máxima homogeneización posible”, no una homogeneización absoluta, pues ello vulneraría las competencias que ostentan los Órganos Forales de los Territorios Históricos. Además, habilita a los órganos forales de los territorios históricos, si así lo consideran, a establecer modelos diferenciados en las siguientes cuestiones, una de ellas es precisamente la “obligatoriedad” de la participación de escolares “en determinados itinerarios y categorías”.*
- *La Ley establece dos mandatos claros en relación a la iniciación deportiva en Euskadi: la garantía de la actividad física lúdica y multideportiva en la etapa de 6-12 años y la posibilidad de realizar competiciones y entrenamientos en las actividades organizadas, siempre de forma complementaria y no supletoria” a la práctica polideportiva en edad escolar.*
- *Establece expresamente que la etapa de iniciación en la actividad física y el deporte en edad escolar se desarrolla con fines educativos y dentro del contexto del centro educativo. Así pues, la obligatoriedad de participar en el Programa Multikirola y establecer el centro escolar como eje de la oferta de deporte escolar hasta los 12 años se establece como mecanismo de garantía polideportiva y ofrecer un contexto que no esté dirigido exclusivamente a la competición.*
- *Que el multideporte tiene como objetivo ofrecer a los niños y niñas, a través del centro escolar, una iniciación deportiva basada en la diversidad deportiva, focalizada en el proceso por encima del resultado. La evidencia científica demuestra que en las primeras etapas la iniciación deportiva basada en la práctica de diferentes modalidades deportivas es más beneficiosa que la práctica focalizada en una única modalidad.*
- *Que la participación en programas de deporte escolar no busca coartar la libertad, sino asegurar que todos los niños y niñas puedan acceder a una experiencia formativa completa, evitando problemas asociados a la especialización temprana y promoviendo una sociedad más sana, equitativa y preparada.*
- *Que el Territorio Histórico de Gipuzkoa, a través de las políticas de iniciación a la actividad física y al deporte, alcanza altos niveles de impacto en diferentes apartados. Así, se constata a través de diferentes datos:*
 - *Cantidad de tiempo activo de las chicas y los chicos.*
 - *Número de niñas y niños que cumplen las recomendaciones de Actividad Física de la OMS.*
 - *Número de chicas y chicos que practican actividad física o deporte de forma organizada.*
 - *Cantidad de licencias deportivas.*
 - *Aportación de deportista promesa.*
 - *Cantidad de deportistas declarados de alto nivel.*
 - *Aportación de deportistas a los JJOO y resultados obtenidos en los mismos.*
 - *Número de participantes en programas regulares de ejercicio físico entre personas con alguna discapacidad reconocida.*

Arantxa Arzak - Gipuzkoako Eskubaloi Federazioa:

Epaia dela eta, zer eszenatoki aurreikusten ari diren galdetzen du.

Pregunta sobre los escenarios que se están manejando en consecuencia a la sentencia.

Iñaki Iturrioz - Gipuzkoako Foru Aldundia:

Kirol anitzeko jarduera fisikoaren hastapena eta ikastetxea eragile nagusi bezala bermatzen dituen politikak garatzen jarraituko dela erantzuten du.



Contesta que se seguirá desarrollando políticas que garanticen una iniciación a la actividad física principalmente polideportiva y al centro centro escolar el agente principal.

Iker Lizarribar - Gipuzkoako Judo Federazioa:

Inguruan jendea poztu egin dela dio. Ikasle guztiak multikirolean parte hartzera behartuta egotera iritsi garela. Futboleko derrigortasun hori ulertzen duela, baina diziplina askotan ez duela zentsurik, kirol hori praktikatzen jarraitu nahi duenak tokia izango duela, judoa adibidez. Horretaz gain, Donostiako eredu ezagutzen duela eta kritikatu egiten du futbol, saskibaloia eta eskubaloian besterik ez oinarritzea multikirola. Esate baterako, atletismoa eta igeriketa urtero jardunaldi batera mugatzen dela Donostian eta aniztasun handiagoa bermatu beharko zela kirolarien psikomotrizitate eta garapen integral hobetzeko.

Comenta que percibe que la gente de alrededor se ha alegrado. Se estaba llegando a un punto que todo el mundo tenía que pasar por el multideporte. Entiende que esto se haga en el fútbol, pero que no tiene sentido en otras muchas disciplinas, como el judo donde el que quiera seguir va a tener cabida. Además, comenta que conoce el modelo de Donostia y critica que solo se base en la práctica del fútbol, baloncesto y balonmano. Por ejemplo, el atletismo y la natación se limitan a una jornada anual en Donostia. Pide una mayor variedad para garantizar un mejor desarrollo de la psicomotricidad y desarrollo integral de los deportistas.

Julen Perales - Kurtzebarri eskola:

Donostikoak ez diren Multikiroleko eredu oso interesgarriak daudela dio. Adibidez, beraiek 18 kirol ezberdin egiten dituzte. Gipuzkoako eredu defendatu behar dela uste du, zenbait udalerritako ereduak berrikusi beharko lirakeen arren. Garrantzitsua iruditzen zaio lurralde osoko kuota berrikustea eta parekatzea. Laburbilduz, antzeko apustu bat eskaintzeko elkarrekin lan egitea eskatu du, ezin bada berdina izan, Gipuzkoa osoan.

Matiza que hay modelos de multideporte muy interesantes, que no son el de Donostia. Por ejemplo, ellos trabajan 18 deportes diferentes. Cree que hay que defender el modelo guipuzcoano, a pesar que habría que revisar los modelos de ciertos municipios. Ve importante revisar y equiparar el tema las cuotas dentro de todo el territorio. En conclusión, pide trabajar conjuntamente para ofrecer una apuesta parecida, si no puede ser igual, en todo Gipuzkoa.

Marta Pastor - Gipuzkoako Foru Aldundia:

Donostiako Multikirolaren errealitatea ulertzeko, E1a eta E2a azaltzeko eskatu du.

Pide explicar al E1 y E2 para entender la realidad del Multideporte de Donostia.

Iñaki Iturrioz - Gipuzkoako Foru Aldundia:

E1aen eskaintza Donostiako zentro batzuetara eta udalerrira gutxi batzuetara mugatzen dela azaldu du. E1 eredu 1993koa da eta gero eta gutxiago lantzen da.

Explica que la oferta de E1 se limita a algunos centros de Donostia y pocos municipios más. El E1 es el modelo 1993 y cada vez es más residual.

Joseba Angulo - Zumarragako udala:

Beraiek behar bada ez direla 18 kirolek iristen dio, baino kirol aniztasun handi bat eskeintzen ari dira beraien eredu.

Dice que puede que ellos no lleguen a 18 deportes, pero están ofreciendo una gran variedad deportiva en su modelo.

Arkaitz Angiozar - Lezoko Udala:

Suertatu den arazoa juridikoa dela azpimarratzen du. Horretaz gain, derrigortasunik gabe kirol aniztasunaren garapena ezinezkoa dela dio, estatuko eta erkidegoko beste lurraldeetan eredu klasiko hutsak lantzen direla eta ez dagoela kirol aniztasun preferenterik. Derrigortasunik gabe, futbolarik eta komunikabideak duten indarra kirol aniztasunarekin bukatuko dutela dio. Gipuzkoako ereduaren datuak onak direla aipatzen du eta mantentzeko ahalegina egin beharko genukeela. Bukatzeko GFA-k eredu mantentzeko araudia juridikoki artikulatu dezakeen galdetzen du.



Insiste en que el problema que ha surgido es jurídico. Además, afirma que no es posible el desarrollo de la multideportividad sin obligatoriedad, que en otros territorios estatales y autonómicos se trabajan modelos puramente clásicos y que no existe una diversidad deportiva preferente. Dice que, sin obligatoriedad, el fútbol y la fuerza de los medios de comunicación acabarán con la multideportividad. Menciona que los datos del modelo guipuzcoano son buenos y que deberíamos hacer un esfuerzo para mantenerlo. Finalmente, pregunta si la DFG puede articular jurídicamente la normativa para el mantenimiento del modelo.

Iñaki Iturrioz - Gipuzkoako Foru Aldundia:

Gaur egun sustatzen ari diren politikak garatzen jarraitzeko asmoa dagoela dio, nahiz eta derrigortasuna erori. Hala ere, legea betearazi beharko da. Hau da, legeak agintzen diguna betetzen, jarduera fisikoa sustatzeko politikak egiten jarraitu behar dela.

Dice que se tiene la intención de seguir desarrollando las políticas en la línea de lo que se está fomentando hoy en día, aunque caiga la obligatoriedad. De todas formas, habrá que cumplir la ley. Es decir, que hay que seguir haciendo políticas de promoción de la actividad física cumpliendo con lo que nos obliga la ley.

Arkaitz Angiozar - Lezoko Udala:

Oarsoaldeko ikastetxetan haurrak multikirolatik baja emateko ez dela dei bat ere jaso aipatzen du eta eskualdean hautematen dena gurasoak ereduarekin gustura daudela da.

Menciona que en los colegios de Oarsoaldea no se ha recibido ni una llamada para dar de baja a los niños por multideporte y que lo que se percibe en la comarca es que los padres están satisfechos con el modelo.

Rosa Lasagabaster - Oñatiko Udala:

Aldundiaz gain, udalek, federazioek eta ikastetxeek Eskola Kiroleko eredu babestu behar dutela dio, eta horregatik, beraiek testu bat idazten hasi direla, hau ez delako bakarrik aldundiaren arazoa. Gipuzkoan eredu asko daudela dio, denak oso baliotsuak direnak eta Eskola Kirolean egiten ari garen lana azaltzeko pedagogia egin behar dela azpimarratzen du, ereduaren zergatien eta helburuen komunikazioa hobetuz. Eskola kirolaren inguruan sortzen diren arazo gehienak ezjakintasunagatik datozela dio, komunikatzaile onak ez garelako. Horretaz gain, eredu babesteko errendimenduko datuak soilik aztertzea akats bat dela dio, errendimendua ez delako bere helburu nagusia. Azkenik, hobetzeko momentua orain dela dio, eredu ibilbide luzea duela aurreikusiz, eta gaur egun lortu duguna garatzeko egin den lan guztia babestu behar dela azpimarratuz.

Dice que además de la Diputación, ayuntamientos, federaciones y centros educativos deben apoyar el modelo de Deporte Escolar y por eso, ellos han empezado a redactar un texto, ya que éste no es solo un problema de la diputación. Dice que en Gipuzkoa hay muchos modelos, todos muy valiosos e insiste en que hay que hacer pedagogía para explicar el trabajo que estamos haciendo en el Deporte Escolar, mejorando la comunicación de los porqués y objetivos del modelo. Afirma que la mayoría de los problemas que surgen en torno al deporte escolar vienen por el desconocimiento ya que no somos buenos comunicadores. Además, considera un error analizar únicamente los datos de rendimiento para proteger el modelo, ya que el rendimiento no es su objetivo principal. Por último, señala que ahora es el momento de mejorar, previendo que el modelo tiene un largo recorrido, y que hay que defender todo el trabajo que se ha hecho para desarrollar lo que tenemos a día de hoy.

Maialen Pescador - Orereta Ikastola:

Lezoko udaleko eskualde berdinekoa dela eta bertako ordezkariak aurretik azaldu duen pertzepzio berbera duela dio. Guraso asko multikirolaren alde daudela uste du eta horrek asko laguntzen duela. Oarsoaldeko eredu kirol asko lantzen dituztela azpimarratzen du.

Dice que pertenece a la misma comarca que el ayuntamiento de Lezo y que tiene la misma percepción que su representante ha explicado previamente. Cree que muchos padres están a favor del multideporte y que eso ayuda mucho. Hace hincapié en que en el modelo de Oarsoaldea se trabajan muchos deportes.

Iñaki Iturrioz - Gipuzkoako Foru Aldundia:



Eskola Kirolako Lurralde Kontseiluaren adierazpenaren proposamena irakurtzen du (eranskina ikusi).

Lee la propuesta de declaración del Consejo Territorial de Deporte Escolar (ver anexo).

Arantxa Arzak - Eskubaloia Federazioa:

Eredua hobetzeko eta azaltzeko erabiliko diren oinarriak garatzeko elkar hausnarketa aldi bat ireki dela adierazten duen puntua gehitu nahiko lukeela dio.

Dice que le gustaría añadir un punto que indique que se ha abierto un periodo de reflexión conjunta para el desarrollo de las bases que se van a utilizar para mejorar y explicar el modelo.

Iñaki Iturrioz - Gipuzkoako Foru Aldundia:

Adierazpenean puntu hori garatu eta gehitzen du (I. eranskineko zazpigarren puntua). Ondoren, partaideak adierazpenarekin ados dauden jakiteko bozkaketa egingo dela dio.

Desarrolla y añade este punto en la declaración (séptimo punto del Anexo I). A continuación, dice que se realizará una votación para saber si los participantes están de acuerdo con la declaración.

Iker Lizarribar - Judoko Federazioa:

Bera federazioaren ordezkaria dela dio, baina bozkatu aurretik federazioarekin hitz egitea gustatuko litzaiokeela, puntu guztiak aztertzeko edo baten bat gehitzeko.

Dice que él es un representante y que le gustaría hablar con la federación internamente antes de votar para analizar todos los puntos o añadir alguno.

Erabakia:

2.

Adierazpena onartu da aldeko bederatzi botorekin eta abstentzio batekin. Parte-hartzaile bat deskonektatu egin da bileran, eta ez du bozketan parte hartu.

Se aprueba la declaración con nueve votos a favor y una abstención. Un participante se ha desconectado durante la reunión y no ha participado en la votación

Donostian, 2025eko otsailaren 12an.

Hugo Xabier Sánchez Sánchez
Jarduera fisikoko eta kirolaren teknikaria



Eranskina/Anexo:

GIPUZKOAKO ESKOLA KIROLAREN LURRALDE KONTSEILUAK ADIERAZPEN HAU ONARTZEA ERABAKI DU:

1. Gipuzkoako Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluak egungo Gipuzkoako kirol hastapenaren ereduarekin bat dator, eta kirol anitzekoa, hezigarria eta adin goiztiarretan lehiaketetara soilik bideratzen ez den praktika bermatzeko gauzatzen diren politiketikiko atxikimendua erakusten du, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren 2/2023 Legeak ezartzen duena jarraituz.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gipuzkoako toki erakundeei eta lurraldeko eskola kirolaren ekosistema osatzen duten entitate guztiei joera hezigarria duen kirol hastapena bermatzeko politikak indartzea eta sustatzea eskatzen die.
3. Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren 2/2023 Legearekin bat etorri, 12 urtera arteko ikasleentzat ikastetxea kirol anitzekoa izango den hastapeneko eskaintzaren ardatz nagusi gisa finkatzeko eta sendotzeko neurri egokiak har daitezela.
4. Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren 2/2023 Legearekin eta ebidentzia zientifikoarekin bat etorri, 12 urtera arteko kirol anitzekoa izango den hastapena bermatzea.
5. 12 urtera arte Multikirola programetan lehentasunezko sarbide orokorra koordinatzea ahalbidetuko duten neurriak hartzen jarraitzea, kirol klub bidez kirol bakarreko programetan era progresiboan sartuz.
6. Hiru lurraldeen jarduera fisikoaren hastapenaren homogeneousatzeari dagokionez, bere oinarriek JFKLk ezartzen dituen aginduak bete ditzatela eskatzen dugu, eskura dagoen ebidentzia zientifiko hoberena kontuan hartuz, eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden kirol hastapeneko eredu anitzetan izango duen aplikazio eraginkorra eta eragina hausnartuz.
7. Gipuzkoako kirol hastapeneko ereduaren oinarrien aplikazio praktikoari buruzko hausnarketa bateratuan sakontzea, eta hau inspiratzen duen funtsen komunikazioan.

EL CONSEJO TERRITORIAL DE DEPORTE ESCOLAR DE GIPUZKOA ACUERDA APROBAR LA SIGUIENTE DECLARACIÓN:

1. *El Consejo Territorial de Deporte Escolar de Gipuzkoa muestra su adhesión al modelo actual de iniciación deportiva de Gipuzkoa y de las políticas que se llevan a cabo para garantizar una práctica preferentemente polideportiva, educativa y no orientada exclusivamente a la competición en edades tempranas, tal y como establece la Ley 2/2023 de la actividad física y el deporte del País Vasco.*
2. *Solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa, las entidades locales de Gipuzkoa y a todas las entidades del ecosistema del deporte escolar del territorio que fortalezcan y promuevan las políticas dirigidas a garantizar una iniciación deportiva con orientación educativa.*
3. *En línea con la Ley 2/2023 de la actividad física y el deporte del País Vasco, que se adopten las medidas pertinentes para consolidar y fortalecer el centro escolar como eje principal de la oferta de iniciación polideportiva para los y las escolares hasta los 12 años de edad.*
4. *En línea con la Ley 2/2023 de la actividad física y el deporte del País Vasco y la evidencia científica, garantizar una iniciación polideportiva hasta los 12 años de edad.*
5. *Que se mantenga la adopción de medidas que permitan coordinar el acceso generalizado y prioritario hasta los 12 años a los programas de multikirola con el acceso progresivo a los programas*



monodeportivos a través de los clubes deportivos.

6. En relación con la homogeneización de la iniciación a la actividad físico deportiva en los tres territorios, solicitamos que ésta se base en el cumplimiento de los preceptos que establece la LAFD, en la mejor evidencia científica disponible, y que considere la aplicación efectiva en los diferentes modelos de iniciación deportiva que existen en la Comunidad Autónoma Vasca y su impacto.

7. Profundizar en la reflexión conjunta acerca de la aplicación práctica de las bases del modelo de iniciación deportiva de Gipuzkoa y en la comunicación de los fundamentos que la inspiran.